

## J GRAFIAREN PROBLEMATIKAZ EGUNGO EGUNEKO EGOERA

*Alfonso Irigoien*

Neke handiegirik gabe ontzat harturik dago gure artean euskarazko hainbat hitz zaharri dagokion grafiarazko ohitura bat, hain zuzen ere ondo konpontzen duelako ahoskatzerakoan ditugun desberditasunak. Hau da: **jakin**, **jan**, **jo**, **jaio**, **saio**, **Loiola**, **Leioa**, eta abar, hitzak hastapenean **j-** eta erdian **-i-** dituztela ematea (1). Horrela, **jaio** formaren kasuan, esaterako, balio berdina izan dezakete bi grafiek, bai **ja-** eta bai **-io** silabetakoek, azkenengoak aurrean

---

(1) Azkue-k bere *Hiztegi nagusian*, 1905-1906, II, 394 orr., dio: "En esta obra se ha excluido la **y** de los primeros, [**loy**, etc.], por seguir la corriente general; de los segundos, [**yaun**, etc.], por razón fundada en que es sonido secundario, homogéneo y coexistente con otros tres en las mismas palabras; debiendo por lo mismo ser todos representados con una sola letra, para lo cual se ha preferido la **j**. **Jauregi** (c) vale por **yauregi** (AN, B-a-o-tš, BN, L), **jauregi** con **j** española (B-g-m-mond, ..., Gc), **dšauregi** (B-d-i-otš, ...) **šauregi** (BN-s, ..., R) y aun **kauregi** (B-l). En cuanto a **bayetz**, **ayotz**, **deyez**, etc., por lo general se han escrito en esta obra con **i**".

Pierre Lhande, S. J., *Dictionnaire basque-français et français-basque*, Paris 1926, bide beretik doa eta horrezaz XXIV orr. dioena aldatuko dugu hona: "Pour le **j**: on retiendra que cette lettre se prononce, en souletin, à peu près à la française, comme dans le mot: **jujube**. En labourdin et bas-navarrais, où on lui substituait souvent l'**y**, elle se prononce à peu près comme dans le mot français **yatagan**; mais généralement, avec un son affriqué. L'**i** a un son uniforme avant et après les consonnes dans les trois dialectes. Entre deux voyelles, il a un son plus prolongé qui, en principe, devrait être figuré par un **y**. Mais, ici, nous nous trouvons devant une difficulté. Le mot indéterminé **etsai**, ennemi, doit-il changer son **i** en **y** dans ses formes déterminées ou ses composés commençant par une voyelle: **etsai-a** (**etsaya**), **etsai-alde** (**etsayalde**)? Dans une lettre au chanoine Hiribarren, Duvoisin expliquait ainsi ce problème: "Quant à l'**y**, je pensais comme vous et je n'en usais pas, lorsque le prince Louis-Lucien a voulu que je l'emploie dans la liaison de deux voyelles: **anaya**, **heya**, **sagarroya**, **khuya**. Après beaucoup de réflexion, mon esprit n'est pas arrivé à une solution bien claire de la difficulté. Pour moi, l'**y** était une superfétation et toutes mes recherches ne m'ont pas convaincu du contraire. Cependant, à **Urrugne**, on dit, en faisant sentir trois syllabes: **a-i-a**, (ahia); **bei-a**, (behia). Il est clair que l'on ne peut écrire ces mots comme **heia** (étale), **laia** (fourche à labourer), lesquels n'ont que deux syllabes. Mais j'estime qu'il est préférable d'admettre le tréma pour ce cas plutôt que d'écrire **etsaya** et puis **etsai**." (Pap. Hirb.). Nous livrons ces observations au jugement de nos confrères de l'Académie et nous n'usons du tréma sur **i** entre voyelles que dans quelques exemples, pour rappeler le problème pendant. Au surplus, notre disposition typographique ne nous permet pas de changer l'**etsai** du mot principal en **etsai(i)alde** dans les formes secondaires". Egungo egunean ez zaigu **behia** idazteko problemarik sortzen, **-h-** erabiltzen baita ortografia orokorrean.

bokala duela, [j] moduan ebakitzeko erabilirik, hau da, gaztelaniaz **yayo** grafiaz irakurriko litzatekeena bezalatsu, eta bai lehenengoa [x] eta bigarren [j] direnean ere, hau da, gaztelaniaz **jayo** grafiaz ebakiko litzatekeen moduan. Badira, gainera, tarteko beste ahoskatze batzu ere hemen azalduko ez ditudanak, beharrezko ez baitira oraingo asmorako. Aditzaera eman dudan usuario honek grafiaren bateratzea bere baitan badakar ere, ez du ukitzen, ordea, ahoskatzearena, eta agian azkenengo honetan bat etorri ahal izateko lehenengoa hobestea litzateke biderik egokiena, Txillardegik Bergara-n R. M.<sup>a</sup> Azkue-ren bidetik proposatu zuen eran, honela Iparraldekoekin errazago egingo gendukeelako bat (2). Baina, oraingoz beste ahoskatzea arbuiatu gabe izan beharko luke, noski, eremu nahikoa zabalean oso sustraiturik dagoen ohitura baita.

Arrazoizko den grafia honek, alabaina, beste alderdi batetik problema batzu sortzen ditu **j** erdaraz bezala ahoskatzen dakitenen artean, hau da, Hegoaldekoen artean, zeren Iparraldean nola ebaki ere ez baitute asmatzen, ikasten saiatu ezik. Eta puntu horiei irtenbide bat eman behar zaie.

Ezaguna denez **j** gaztelaniaz bezala ahoskatzea haren eraginez datorkigu eta berria da euskaraz, hartan ere berria zen bezala bezalaxe. Eta ahoskatze horren aurreko ebakera **x** zen, [š], gaztelaniaz **México**, orain **Méjico**, euskaraz eremu batean **ajola**, baina Axularren baitan **axolduritu**, beraz **axola**.

Latinez [j]-en grafiari dagokionez **i** erabiltzen zen eta **j** letra ez da Erdi Aroan eskribauen artean haren irudia egiterakoan sorturikako aldaera baikizik. Latinari dagokionez **j** eta **v** letra ramistak dira, humanistek sartu baitzituzten eta bereziki Pierre La Ramée filosofo eta gramatiko frantsesak (1515-1572), (3). Eta egungo egunean latinezko autoreak era bitara irakur daitezke [j] horri dagokiola: bokalaren aurrean edozein kasutan beti **j**-rekin argitara emanen arauera edo bestela **i** baino ez dutela, —hiztegiak ere era bitakoak daude: batzu **j** letrari bere lekua ematen diotenak eta beste batzu tradizio zaharrari eutsirik **-i**-ren barruan dena sartzen dutenak—. Jakina, hizkuntza klasikoan ikertzaileen artean bigarrena hobestearen joera nabari da azken denboretan, normala denez (4).

---

(2) R. M.<sup>a</sup> Azkue-k bere **Gipuzkera osotua** lanean, **Euskera** (1934), 289 orr. eta hurrengoak, orrialdeek bere numerazio berezia dutela, eta (1935), 151 orr. eta hurrengoak, **yaiki**, **yaitsi**, **yafaiki**, **yardun**, **yauretsi**, **yoan**, eta horrelakoak proposatzen ditu, 144 eta 145 orr., eta handik laster **Euskalefiaren yakintza** liburua argitara zuen, —lehenengo tomoa 1935-garren urtekoa da—, eta hitzaurrea ere bere euskara batuan du eta, hain zuzen ere, **yoan**, **yakin**, eta abar, formak **y-z** ematen ditu, nola ahoskatu behar duen dudarik batera izan ez dezan irakurleak, noski. 1918-garren urteko **Ardi galdua** elaberrian, ordea, **j-z** idatzi zituen halakoak.

(3) M. Niedermann, **Phonétique historique du latin**, quatrième édition, Paris 1953, 9 orr.

(4) **Oxford classical texts** sortan bide hori jarraitzen da. Ikus Horazio, **Q. Horati Flacci carminvm liber primvs**, II, 17, **Iliae dum se nimium querenti / iactat ultorem**, ...

Berdin da **Collection des Universités de France** sortan ere. Ikus Salustio, Paris 1964, **De convivratione Catilinae**, VII, 4, **Iam primum iuuentus, simul ac belli patiens erat, in castris per laborem usu militiam discebat**, ...

Ikusi denez **jaio** hitzean joera biak hartzen dira ontzat, zeren, nahiz eta zenbait lekutan bai **j** eta bai **i** berdin ahoskatu, desberdin ematen baitira izkribuz, eta Lapurdin ere berdin da, ikus **iayo**, Leic., 164, eta **yaio** Hiribarren-en baitan, **Eskaldunac**, 17 orr., Joannes d'Etcheberri medikuak, ordea, gauza bererako **jajo** ematen du bere lanetan, 77 orr. (5).

Baina hitzaren hastapeneko **j** grafian gaztelaniazko **j**, [x], bezala ahoskatzearen ohitura ezkututzen da batez ere, eta ebakera hori kasuren batzuetan erdian ere gertatzen denez gero, —gaztelaniatik berrikitan mailegaturiko hitz arruntetan beti—, **x**, [š], baten segida izan daiteke, azken jatorria [j]-an ez duela, euskarazko iturburua duten hitzetan hastapenean gertatzen ez den erara. Horrela, ahoskatzearen eraginez **ajola** idazten baldin bada, horren azpian **axola** dago, eta ez **\*aiola**, eta **gizarajo** edo **gizagajo** eginez gero **gizagaxo**, eta abar, eta **luju** eginez gero —ikus Arratia eta Mungiako ene lana—, gaztelaniazko **luxo**, **x** = [š] duela, latinez **luxus**, -us, hau da, **x** = **ks**, eta **antoju**, gaztelaniaz **x**-ekin nahasirikoa aurrekotzat duela, latinezko **ante oculum**. Hala ere **erloju** forma, erdarazko **j**-ren gisara ahoskatu, **erloiu** erara ere ezagutzen da euskaraz, [j] duela, eta latinezko **horologium**, -ii, grekoz **horológion**, delatikotik dator.

---

Berdin da Barcelona-n argitara izan den **Scriptores latini** sortan ere. Ikus Seneca-rena, Barcinone MCMXXVII, **De constantia sapientis**, VIII, 1, **Praeterea iustitia nihil iniustum pati potest, quia non coeunt contraria**.

Berdin da **Colección hispánica de autores griegos y latinos** sortan ere. Ikus T. Lvcreti Cari, **De rerum natura**, I, Barcelona MCMLXI, I, 358, **Denique cur alias aliis praestare uideamus / ponderare res rebus nilo maiore figura?**

**Classiques Granier** sortan, ordea, beste bidea jarraitzen da. Ikus Ovidio, Paris 1957, **Tristes**, I, 1, 37, **Judicis officium est, ut res, ita tempora rerum / quaerere: quaesito tempore, tutus eris**.

(5) J. M. Hiribarren, **Eskaldunac**, Bayonan 1853. Hordago-k haren erretratuzkoa eman zuen, Donostia 1979. Joannes d'Etcheberri, **Obras vascongadas**, con una introducción y notas por Julio de Urquijo e Ibarra, Paris 1907.

Leizarraga-k 1571-garrenean, hastapenean **ia-** gisakoak erabiltzen ditu: **iaiqui**, **iaquin**, **ioan**, **iuramendu**, baina erdian **etsayac**, **ezpaltzayo**, eta abar, **layo** hitzean ikusi dugunez, eta Lapurdin bada gauza bera aditzera emateko bai hastapenean eta bai erdian **j** grafia erabili izan duenik ere, ikus **Meditacioneac**,... Eliza-gizon batek **eginac**, Bayonan 1809, "Prefacioa", **haujen**, 1 orr., **Majestate**, 68 orr., **hantusteari hurbildanic darrajo jauzcortasuna ta pairu-escasa**, 290 orr. **joatea**, 291 orr., **jasan**, **lejal**, 326 orr., **lakheta zajo**, **ematen zaje**, **ematen deraje**, 327 orr. **jende**, 400 orr., **sorhajoa**, baina hala ere, 3 orr., **heien**, 31 orr., **arraio**, 38 orr., **leialqui**, 40 orr., **launa**, eta inoiz, 46 orr., **bazayo** ere, eta abar. Lehenago, gorago ikusi dugunez, Urkixo-k argitaratu zituen J. d'Etcheberri-ren esku izkribuetan, **jaquitea**, 74 orr., **joan citçajoela ... / anaja Emperadorea**, 86 orr., **presunaja**, ... / **Bajonaco Ippizpicuac**, ergat., frantsesez **Bayonne**, baina hala ere **mintço çayelarian**, 74 orr., **atheraja**, 75 orr., **Biriatic Hendajera**, 79 orr., **arbujo**, ... / **etsajac**, 82 orr., **citçajon**, baina **baitçaye**, 84 orr., eta abar. Luis-Luziano Bonaparte printzeak argitara emanikako **Bible saindua** liburuan Duvoisin kapitainak, haren eraginez, (1) notan ikusi dugunez, **ene anaya**, Jenesa, XX, 5, **sehia aitzinera goan zitzayo**, Jenesa, XXIV, 17, eta **arinki pegarra besoetara jautsirik**, eman zioen edatera, Jenesa, XXIV, 18, erakoak ematen ditu.

Azkenengo hau, ez aurreragoko besteak, **erloiu** gisara idaztea litzateke zuzenena, erdiko silabetan, bokal artean daudenean, bestelako hitzetan egin ohi den erara **-i-** grafia duela, [j] baten oinarria duten guztiak bezala, eta hori berori egin daiteke latinetik mailegu berrietan ere, hala nola **proiektu**, latinez **proiectus**, **-a**, **-um**, **proiektzio**, latinez **proiectio**, **-onis**, eta abar, —hala idazten da latinez **Diccionario ilustrado latino-español, español-latino**, quinta edición, Barcelona 1960, delakoan, erromatarren denborako tradizioari segida emanik—.

Baina, hala ere, hitz arruntetan **-i-**ren aurrean **-j-** idatzi beharko litzateke behar den bezala bereiz daitezen bata eta bestea: **birjina**, **ijito**, **erlijio**.

Bilbon 1984-garreneko apirilaren 16-an.